

# DONOSTIAREN AZAL ETA MAMIA

Egun auefan gure egunkari batek udazale baten itzak ekarri ditu Donostia'ri haliegarri zalona ta mesede zalona adieraziaz. Izketaldi aren atari jarraituz, guk ere gure alea bota nai degu. Donostia'ren azala, bere ikusmira, ingurua, itxas-aldeko egokiera ezin ederragoa da. Onek erakartzan dizkigu alde ontara udazaleak ugari. Gure itxaso ta mendiak txundituta uzten du Kastilla'ko lur erreak besterik ikusi ez dituzana.

Baina guk azalari baiho gelago begiratu nai ditugu mamia. Ta Donosti ta Gipuzkoaren mamia bere giza-emakumeen nortasun eta txeratasunak sortzen duana da, noski. Gure lur malte onek, beronekin du berriako bizilagunen itxera giza'koa. Emen arkitzen gaituzte kanpotarrak gure etxeko atean, abegi ta arvera jasotzen eskalniaz erbestetik datorrenari.

Donosti beti da lapide ta esamesen gai guziztat eta egun auefan norbaltek aztertu ditu Donostia'ri kategarri ta mesede zaizkion alderdi batzuek. Aurrenengo kaltea, udazale merkeak da. Kartena degu. Frakamoxdun giza'umeak, beren iztar eta zankoak argitara emanaz, arlotekeri lanioa jartzen dute gure nagusitasunean. Donostia'ri belarondoka ematen dio onelako udazaleen jantzetako arlotekeriak. Askoren iritziz, kategarri degu ere, Kasinoa itxita eukitzea. Jokoaak bere kalteak ditu gizarteko, baiha zortizarrez urreegi degu Biarritz, eta emen gabaal nai degun jokoa, eskura dute onuntza datozenak mugaz bestaldeko uri orretan. Orregatik, jokorean kaltea giztitzeko lege batzuek neurri artu ta askoren iritiz mesede izango luke Donostia'k Kasinoa berriro iri-hiko ba-iltza.

Onela dira gauzak kanpokoan aldetik begiratzen ba-ditugu. Baiha etxekoentzat Donostia'k duan pizirik ederrena, Euskal-erriko uriburu edo kapitalen artean euskaldunena izatea da. Uda-zaleak joan da gero, bertan gelditzen zaigun xalixa ta girona da guretzat ederrena ta maifagarrena. Euskal irakaskintzak, iaun baiho aurrerapen aundiagoa ta indartsuagoa du Donostia'n. Auxe du, gure iritiz, Donostia'k bere erakusgarritik jatorrena.

# BI OLERKARI GAZTE MUNDUAREN ORDUAN AZURMENDI ETA LASA

Bi olerkari gazte dira Azurmendi eta Lasa. Beren mendearen semeak. Esan nai dut, beren mendearen mailan dauzkan, Zergatik, denok gerra bakoitza bere adinare norpre mendearen seme; baiha ez guziok norprearen mendeko kultura mailan gaudenak.

Onekin ez dut esan nai olerkari-rik onenak diranik, baiha bai onenak izatearen besteko garrantziko dena: mendearen girokoa izatea.

Au ez da nik bakarrik asmatua. Gauza oietan guk baiho gelago daki-en Catalunya'ko olerkari ospetsua dan Bauçà adiskideak esana da. Euskal literaturari buruz egiten ari diran lan baterako bialdu nizkion ogeitamar euskaldun olerkarietarik, lau onenen barruan atatu zituan Azurmendi ta Lasa. Esanaz, munduko gaurko poesiarik onenaren antologia batean sartzeko bezelakoak zira-la.

Bauçà-ren iritzi ori jakiteak ez ninduan askorik arritu. Ta, Aresti askoz gutxiago; bera izan dalako bide berri auen urratzailla.

Ta, lenera nioja. Etzaida ajola onenak izatea. Aski da oraingoak izatea. Gizonkiagoak izatea. Gizona- ren neurria beren prolemetan eta kezketan egon daitzen.

Orrela dira Azurmendi eta Lasa, beren garaia finkaturik. Lenago Etxepare, Etxahun, Ippargiriet, Eizanburu, Bilintx, Lizardi ta Lauaxeta beren mendeko giro ta joerari finkatu ziran bezela.

Joxe Azurmendi, Arantzazuko fraile gaztea, Lasa baiho ezaguna-

goa dugu. Gandiaga-ren Elorri-ri egin zizkion arpenetatik agiri zaion olerkari on baten ezpala. Gerroago, Olerri-n agitaratu zuan *Poema beltzaren arbola-k* izugarriko arrara eragin zidan biotzean. Une ura izan zan neretzat gure olerkita alorren itzaropeneko iturburu bat nabaitu nuena. Ez da maiz gertatzen dana. Baiha, Otaegi izenpetzen zuan, nor izan zitekan zalantzan gelditu nintzan. Aita Onaindiak atera ninduan dudatik. Ta geroztik bere animatzailla bat izan naiz, itxura garbeo irizpideak zapuztu zuelako. Orrela dira gure arteko gauzak.

Bere baldera ta deiak dira:

*Zein ordu da, zein ordu? Joan ezkeroz, Jainkou itzuli ez denekoa... gizonok itzuteko? Zein ordu, ba jainoa?*

*Iragan ziren otsoak aingeruak itzali.*

*Argia debekatu zaigu.*

*Nik bakarrik ikusten dut atabaren negarria.*

*Nire itz pobrea diru balitz jaten eukiko lukete langille pobreak. Eta soberanterik ez nuke Bankuan jarriko.*

Orrelako pasarte biziak ditu Azurmendi. Bere olerkian ez dago betegarrik. Esan eta esan-nai jario mozkorri baten barna eramaten gaitu, indarrez. Adierazpen aukerati batzuek besterik ez dira: bere munduaren argia erakusten duten leio txiki batzuek besterik ez. Baiha, obeto ulertzeko, aria emen, pakeari egindako poematxo bat, osorik:

*Bazioan egun batez nire errira bizitzaren bidetik... Ta gizonak etik begiratu ez zuten. "Ba dugu pake; jarri". Inork ez zuen erantzun: ilda zegoen errira.*

Ikasbide ederra, beren burua olerkartzat duten askorentzat.

Mikel Lasa beriz, Z. ARGIA-ren idazle bezela ezagunagoa dugu. Baiha beste olerkari aundi bat dugu. Obeto esanda, gaurkoa, ta aski da. Mikel-ek, expresionismoaren aldetik indar geingo du. Bear bada, era berriago bat da euskal olerkaria. Gutxi antz eman dion era. Obeto esanda, bi estilo diferente dira. Bakoitza beren maizu dirala.

Urteetan aurrera dijozen askok ezingo dute zeazki konprentu beren expreziota, baiha ez daukat du-darik gazteen biotzetan sakonki barneratuko dirana. Gazteak, bere mundua, bizi du. Ori da adinareen mendeko. Ta, zear-bide oietan bada anitz misterio, beste adin batekoak juzgatu ezindakoak. Beraz, Azur-

mendi ta Lasak olerki musaren iturburuetatik dakarte euskaldun gazterietarantzko ur berria. Ur ongarria, jatorrizko nortasunak irungo bada.

Lasak, Egan-en agitaratu izan dituzte olerki batzuk. Baiha, bai bataik eta bai besteak, beren olerkirik geienak argitaratzeko dituzte. Au irakurtzen dutenak kontuan izango al dituzte argitaratzean, ainbeste olerkari txarren artean naasturik igarri gabe pasatu ez ditezten.

Geienetan bertso librean ari dira. Baiha, olerkartzari buruz zerbait dakianak, jakingo du bertso moldeen legeak ez dirala orren gaitzak, baiha bai adierazteko poeta izkuntza. Ta, au Lasak ondo azaltzen digu.

Azurmendi-ri tristura darion bezela, era berean dario Lasa-ri umorea. Baiha, bere umorean beti da ezkuntzeren bat, bigarrenago plano bat adierazi nairik. Ara atal batzuek:

*katuak gabaretan lo daudez gau [Fegun, denborari denbora emanaz...]*

*Inauteria da, inauteri gaba ta inork ez daki bakoitzaren bati [karduearen berri. Argi bakoitza itzalean itzlen da agoni ixilllean, nola Kristo profanatu ori, billutsik bide bazterrean, ain desanparatuta] [tuki etsaia agonia...]*

*Edozein une ona da bizitzea.*

*Poetaren gogoa bizi dabil airean. Amets-errian errega mundu onian pobere.*

*Gauerdian nago ta illak dituz lagunak Aragón gastea, Tzara Leautréamont, Lelian gizarajoa Kufka eta Baudelaire begirada tristea.*

Ez esan Lasa-k zantzo berria ez dakarrenik. Oraindik izarreri olerkigian dabilzatenak, jaso bitzate ikasbide au:

*O iri, o izar, oi ortzi ez dizute bahio ezter. Gizonaren irri ta keñtu batek zuetako mila balio dute.*

Eta, bukatzeko, beste au illargian daudentzat:

*Baihan euskeltzaleak balekita [aberastegia dela izkuntzarik txiroena ere gure sabelaren darumagun histori] [apurtu au kontatzeko]*

J. SAN MARTIN

# EUSKALDUNAK

## GOMIKA

Lenago egun batean adiskide Gallenbrunner'ek irripaz ezan zidan: "Irakurri al duzu 'Lexikon für Theologie und Kirche' itegiak euskalduneri buruz ekaritzen duana?". Ezezt erantzun nion. "Ba, an botatzen dizkizuen alubatzekin arreak jarri zaitzekete euskaldunok".

Joan nintzan liburutegira; arek esandako itzegia nere eskuetan artu nuan. Itzegi au 11 liburuz edo osatuko da. Zuzendarien artean Karl Rahner ditzate, gaur egun mundu osoan teologari ezagun ezaguna. Bere arloan ez da agertu Alemani aldean itzegi onen artekorik. Beste latorrietan ere naiko lan olako bilduma senda ta mamitsurik arkitzea.

Euskeratuta emango ditzut, euskaldunetz agertzen duana. Ez dana, alare, garrantzitsuena baizik.

"Euskaldunak Bizkaya ipazter aldeko lurraldeetan bizi dira, 200.000, gutxi gorra bera, Frantzan. España'n 650.000. Ego-Ameriketako La Plata latorrietan ere euskaldun aunitz arkitzen dira. Euskaldunak beren buru-azkartasun, aktibidade, zintotasun ta erligiotasunagaitik bereizten dira. Beren bizimodua batez ere soietan, ardourazotan, industria, arrantza ta itxas joutorrietan irabazten dute.

Nor ba dirala baitezko beren izkuntzari (euskerari) ekiten diote. Euskerari mintzaira, dialektu diferenteetan itz egiten dute; baiha oraindik ez dute iritzi idazkeraren batasuna.

Euskal kultura (Musika, dantza ta jolasetan) oso gizonetzkoa (viril) da. Euskaldun ezagunak Inazio Loyola ta Miguel Unamuno dituzte".


Ez dut ausnartze luze egirik egin nai. Ori irakurleari uzten diot jainkoak entzun dezaiola J. Vincke'ri esaten duanean: "Euskaldunak beren buru-azkartasun, aktibidade, zintotasun ta erligiotasunagaitik bereizten dira". Egia ote? Edota gure gurasoekin batera ori guztia itzali al zan?

Eta beste ura: "...euskerari ekiten diote". Bildur naiz: J. Vincke'k ez ote du euskaldunetz ideia on egirik. Euskalerria ongi ezagutuko balu, aindat eta ainbestek euskerarenaganako duten zabartasuna ikusiko balu, aurturiko al hitzake ori esaten?

J. Vincke'ri ahaztu egiten zaio, nunbait, beste euskaldun ezagun ta jator bat ukitzea: Krantzizko Javier Naparra zoragarrien jainoa, alegia.

Besterik ez. Agur eta urrengo arte.

Baserriaren alde EUSKAL IRRATSAIOAK



**Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián**

Banen baneko azyak  
Ongarri ta abonoak  
Belar Zuloak  
Erosi edo berritzeko diru aurreratzea  
Baserri, lur-tresnak ta abar  
Torrelavega'ko Perira Joan etorriak.

ERAMAN - ERARRIRAKO Transportes AZKAR NORANAIKOI

Donosti'tik:

Bartzelona'ra ...	Egunero
Zaragoza'ra ...	
Valentzi ...	
Madrid ...	
Oviedo ...	
Gijon'a ...	
Iruña'ra ...	
Bilbao'ra ...	
Sevilla'ra ...	Astean iru aldiz

Lugo, Coruña, Orense ta Vigo'ra.  
Eustasio Amilibia, 13 ta 14  
Telef. 25 4 57 - DONOSTIA

# GURELSA

GIPUZKOA'KO TA NAPARROA'KO ESNE ONENAKIN GERTUTAKO ESNEKIAK: ESNE PASTERIZATUA, ESNE SOILLA, ESNE-AUTSA, ESNE-GAINA, GURINA TA ABAR. - EGUNGO EGUNEAN, LURBIRA OSOKO ERRI AURRERATU GUZIZTAN, ONELAKO ESNE TA ESNEKIAK BAKARRIK ERABILTZEN DIRA

# GURELSA